



C ERANSKINA

Irakaskuntza Ertainen Institutu Teknikoetako Irakasleen kidegoko karrerako funtzionarioak
Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez dauden lan-legepeko irakasle finkoak

C.1.- Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea ofiziozko esleipenetarako

Ofizioz esleipenak egin behar direnerako (eskatutako lanposturik esleitzen ez denerako) erreferentziakoa ez den Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea Hezkuntza Sailaren web orrian ezarritako EGUTEGIAREN ARABERA da:
<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Egungo erreferentziako lurralde historikoa mantendu nahi dutenek ez dute lurralde aldaketa eskatu beharko.

Eskaera Hezigunea atariaren bidez aurkeztuko da (<https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio>), "Lurralde-aldaketa" bannerretik.

C.2.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda

2025-2026 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:
<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

C.3.- Pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:
<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

Erreklamazioa Hezigunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

C.4.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda

2025-2026 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:
<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

C.5.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleitu diren lanpostuen zerrenda EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:
<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>
Era berean adieraziko da zein lanpostuk dituzten ezaugarri bereziak.

**C.6.- Parte hartzeko eskabidea betetzeko epea**

Hezigunean dagoen eskabide elektronikoa betetzeko epea EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:

<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

C.7.- Esleipenaren behin-behineko ebazpena

Esleipenaren behin-behineko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

C.8.- Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenaren behin-behineko ebazpenaren kontrako erreklamazioak egiteko epea EGUTEGIAREN ARABERA egongo da zabalik eta emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian:

<http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/>

Erreklamazioa Hezigunean eskuragarri dagoen ikasturte hasierako aplikazio informatikoan agertzen den loturaren bidez aurkeztu beharko da.

C.9.- Esleipenaren behin betiko ebazpena

Esleipenaren behin betiko ebazpena EGUTEGIAREN ARABERA emango da argitara Hezkuntza Sailaren web-orrian <http://www.euskadi.eus/langile-ikasturte-hasiera-esleipena/web01-a3hklair/eu/> eta hezigunean.

C.10.- Aurkezpena esleitutako lanpostuan

Hautatutako pertsonak irailaren 1ean esleitutako lanpostuan aurkeztu beharko dira.